2022ko maiatzaren 31ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Sabine Etcheverry, Anne Marie Darguy, Maité Oxarango, Samuel Biscay, Koxe Barbier, Philippe Mongabure, Hervé Parachou, Kattalin Duhalde, Ramuntxo Oteiza,Karine Perez, Arño Gastambide

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Virginie Sabaloue, Patrick Barneche, Fred Hernandez, Chantal Echevertz

1. Arrontaeneko herri-bidearen zati baten desklasatzea eta besterentzea

Koxe Barbier jauna bilkura gelatik atera da gai horren aipatzeko denboran.

Koxe BARBIER jaunak jakinarazi du Arrontaeneko herri-bidearen zati bat eskuratu nahi duela; **123** m² zabal da, kadastrako A 611. zatian, bere etxeari lotua, eta horren gainean eraiki ziren historikoki bere etxeko eskailerak eta bere lursailaren hesia.

Kasu honetan ez da beharrezkoa inkesta publiko baten egitea zati horren salmenta aitzin, Errepideen Kodeko L.141-3 artikuluak herri-bideen klasatzea eta desklasatzea ez egiteko baimena ematen baitu, salbu operazioak errepideetan zirkulatzeko eskubidea hausten duelarik, eta hemen ez da hala gertatzen aipatu bide zatia aspaldian ez baita gehiago bide.

Arrontaeneko herri-bide horretako 123 m²-ko zatia desklasatzea proposatu da eta 5€/m²-ko prezio arautuan uztea (erregularizaziorako erabili prezioa) – neurtze-dokumentua kontsulta daiteke.

Hor ziren kide guziek aho batez salmenta horren alde bozkatu dute.

2. Etxexuriko herri-bidearen zabaltzea

Geroan oraino auto gehiago ibiliko den leku horretan segurtasun neurriak hartzeko, Etxexuriko herri-bidea zabaldu beharko da REY anderearen kadastrako B 85. zati bat bideari gehituz (250 m² nonbait han).

Errepide operazio horren egitea proposatu da, eta kasu honetan aitzinetik inkesta publikoa egin behar da.



Kontseiluko kideek inkestaren abiatzea bozkatu dute.

3. DARQUYren lursailaren salmenta

DARQUY senar-emazteek, beren etxea kokatua den kadastrako B 1199. zatiaren jabeek, galdegin dute Herriko Etxeari ondoko herri-lursailaren erostea, erregularizatzeko. DARQUY senar-emazteek lursail hori artatzen dute hor plantatu direnez geroztik.

Aiherrako plazan da herri-lursail hori, kadastrako B 881. zatian, 539 m² zabal da, eta lehengo baserri-bidea zen. Herriko Etxeari ez zaio baliagarri lursail horren atxikitzea. Auzapezak proposatzen du 5€/m²-ko prezio arautuan saltzea (erregularizaziorako erabili prezioa).

Hor ziren kide guziek aho batez salmenta horren alde bozkatu dute.

4. Lanpostu baten lan denboraren aldatzea

Langilea progresiboki erretretara joanen baita, lan denbora egokitzeko galdea egin du, eta horri ihardesteko beharrezkoa da denbora osoko teknika-laguntzaile iraunkor postuaren asteko lan denbora aldatzea.

2022ko apirilaren 14ko Batzorde Teknikoaren aldeko iritzia ukan ondoan, proposatu da 2022ko apirilaren 15etik goiti denbora ez osoko teknika-laguntzaile postu iraunkor baten kentzea (astean 24 oren) eta egun horretatik beretik denbora ez osoko teknika-laguntzaile postu iraunkor baten sortzea (17,50 oren astean).

Kideek aho batez postu berriaren alde bozkatu dute. Irailean langileen taula aurkeztuko da.

5. Hilerrietako aurrekontu gehigarriaren zerratzea

Hilerrietako aurrekontuan hilobien eraikitze/salmenta operazioak bilduak dira eta ehorzketa lanak (hobiratzeak/gorputzen lekuz aldatzea). Hilerrietako alorrean aktibitate guti baita, ez du balio aurrekontu gehigarria segitzea.

Beraz, eta andere diruzainarekin ikusi ondoan, Herriko Kontseiluari proposatu zaio hilerrietako alorreko aurrekontu gehigarri zerratzea 2022ko ekainaren 30ean kontuak bururatu ondoan, kontulari publikoaren kontuarekin bat egiten dutela egiaztatu ondoan.

Soberakinak eta defizitak Herriko aurrekontu nagusira ekarriko dira, kasu horretan 646,47 €-ko soberakina, ondoko aldaketa erabakian aurrekontuan sartuko duguna.

Halere analitikoki segituko ditugu hilerrietako gastu eta irabaziak.

Hor ziren kide guziek aho batez aurrekontuaren zerratzearen alde bozkatu dute.

6. Txakurrak txakurtegiarekin hitzarmena

Baserrialdearen eta Itsas Arrantzaren Kodeko L.211-24 artikuluaren arabera, herri bakoitzak behar du herri-txakurtegi bat ukan herraturik dabiltzan animaliak hartzeko eta zaintzeko, L.211-25 eta L.211-26 artikuluek finkatu eperaino, edo bestela beste herri batean kokatua den txakurtegi baten zerbitzua ukan behar du.
2004an sortu Txakurrak zentroaren kudeaketa bermatzen duen Helburu Bakarreko Herriarte Sindikatuak, kide dituen 19 herrien txakurtegia kudeatzen du: Angelu, Basusarri, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale, Beskoitze, Kanbo, Gixune, Hazparne, Itsasu, Lehuntze, Larresoro, Mugerre, Donapaleu, Hiriburu, Urketa, Ahurti, Uztaritze eta Milafranga.

Sindikatu horrek herrien izenean bermatzen du eremu publikoan herraturik dabiltzan gatu eta zakurren harrera eta atxikitzen ditu legezko epean. Jabeak xerkatzen ditu eta animaliak itzultzen jabeek galdatzen dituztelarik. Legezko epean jabeek berreskuratu ez dituzten animaliak aterpean ezartzen dira norbaitek adoptatzeko gisan.
Herri bakoitzaren urteko finantza parte hartzea kalkulatua da prefeturak jakinarazi Funtzionamendu Hornidura Nagusiaren arabera (orain 1.60 € biztanle bakoitz).

Aiherrako herria nekezian izan da berriki zakurrak eta gatuak abandonatuak izan baitira. Jarrera hori gaitzesten dugu, legearen arabera krudeltasuna baita. Herria ahalmenik gabe da erregularra bilakatzen hasia den jokaera horren aitzinean, eta fermuki kondenatzen dugu jabeen koldarkeria.

Aterabide baten atzemateko, biltzarrari proposatu diogu Txakurrak HeBHeSaren kide egin dadin Aiherrako herria.
Hor ziren kide guziek aho batez kidetzearen alde bozkatu dute.

Ordezkari tituludun bat eta ordezko bat izendatu dira:
Samuel Biscay eta Kattalin Duhalde izendatu Aiherrako ordezkari dira tituludun eta ordezko.

7. Aldaketa erabakia (Ordena operazioak)

2024ko M14 nomenklatura aldatuko da eta M57 bilakatuko.
Aldaketa horren prestatzeko inbentario bat behar da egin andere diruzainarekin lankidetzan. Lan hori hasi ondoan, andere diruzaina ohartu da operazio batzuk zuzenkontra kontabilizatu direla.
Aldaketa erabaki horren onartzea proposatu da operazioak erregulartzeko eta andere diruzainak aipatu artikuluetan sartzeko.

INBESTIMENDUAK

Dépenses		Recettes	
Article (Chap.) - Opération	Montant	Article (Chap.) - Opération	Montant
2128 (041) : Autres agencements et aménag	350,54	21312 (041) : Bâtiments scolaires	14 832,33
21318 (041) : Autres bâtiments publics	287 347,53	21318 (041) : Autres bâtiments publics	17 286,47
2132 (041) : Immeubles de rapport	18 042,76	2132 (041) : Immeubles de rapport	10 617,76
2138 (041) : Autres constructions	62 887,09	2135 (041) : Instal.géné.,agencements,aménagement	2 095,20
		2138 (041) : Autres constructions	254 785,89
		2151 (041) : Réseaux de voirie	11 562,49
		2158 (041) : Autres install., matériel et outillage tech	350,54
		2188 (041) : Autres immobilisations corporelles	57 097,24
	368 627,92		**368 627,92**
Total Dépenses	**368 627,92**	**Total Recettes**	**368 627,92**

Gainerako gaiak:

Oroitarazi da bozak izanen direla ekainaren 12an eta 19an (12an gela handian eta 19an gela ttipian).

Herritarren aperitifa, Herriko Kontseiluak eskainirik ekainaren 19an Denen etxeko gela handian.

A1126 lursaila: Dosier hori bururatua da Arotcarena anderearen baimenarekin, eta lursaila LTEPri saldu zaio haren Administrazio Kontseiluaren baimenarekin. Jakinarazpen ofiziala ukan bezain laster jakinarazi dizuegu.
A1417 lursaila: ikerketa abiatua da, deus berririk oraingoz.
Berriz ere gure interesa jakinarazi dugu lursail horren eta ondokoaren (A1418) eskuratzeko, berantago antolaketa zerbait egiteko hartan. Herriak lur estrategia hori jarraikitzen du, LTEPk eramana.

Bilkura 22:12an bururatu da

Arño Gastambide, auzapeza